

EUSKARA ETA LITERATURA LANTZEKO

SITES-A

LEHEN HEZKUNTZAKO 2. ZIKLOAN EUSKARA LANTZEKO BALIABIDE-BILDUMA

EGILEA: Ibon Lopez de Munain Marin

DATA: 2023ko irailaren 28a

Ikasmaterial honek Hezkuntza Sailaren onespena du.2024/04/09

AURKIBIDEA

SARRERA	4
CURRICULUMA (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa)	5
A) Konpetentzia espezifikoak	5
B) Ebaluazio-irizpideak	6
C) Oinarrizko jakintzak	6
EUSKARA ETA LITERATURA LANTZEKO SITESA	7
A) Metodologia	7
B) Testu motak lantzeko baliabideak	8
1. Azalpen-testua	8
2. Deskripzio-testua	13
3. Instrukzio-testua	18
4. Narrazio-testua	22
5. Gidoia	29
6. Argudio-testua	35
C) Ebaluazio-orriak	40
D) Gramatika	50
1. Esaldien egitura	50
2. Izen-sintagma eta aditz-sintagma	50
3. Deklinabidea	51
4. Aditza eta aditz laguntzailea	52
5. Hitz-familiak	52
E) Puntuazioa	52
1. Puntua	52
2. Koma	53
3. Bi puntuak	53
F) Testu-antolatzaileak	54
G) Ortografia	55
1. Letra larria	55
2. R-ren eta RR-ren erabilera	55

3. H-ren erabilera	55
4. Z-ren, S-ren eta X-ren erabilera	55
5. TS-ren, TZ-ren eta TX-ren erabilera	56
6. A itsatsia	56
ERANSKINA	57
BIBLIOGRAFIA	64

SARRERA

Lehen Hezkuntzako eskoletan metodologia aldaketa sustatzen ari dira azkenaldian: proiektuen bidezko irakaskuntza, txokoetan lan egitea, lan kooperatiboa... besteak beste. Dekretu berria aztertzen badugu, argi dago irakaskuntzan kompetentzien garapenean oinarritu behar dugula. Lehen hainbeste aipatzen ziren edukiak bigarren maila batera pasatu dira. Ondorioz, metodologia aldatu behar dela ondoriozta dezakegu. Proiektu honen helburua Euskara eta Literatura irakasgaia Natura, Kultura eta Gizarte Ingurunearen Ezagutza arloarekin eta beste irakasgaiekin lotzea da. Hau da, Euskara eta Literaturari dagozkion kompetentzia espezifikoak eta oinarrizko jakintzak proiektu edo ikas-egoera bat garatzen dugun bitartean lantzea. Era honetan, diziplinartekotasuna lantzen dugu eta hizkuntzaren ikas-prozesuari helburu zehatza eta zentzua ematen zaio. Ez da hizkuntza lantzen, landu behar delako.

Proiektu honetarako sortu dudan sitiesean, 2023/77 Dekretuak zehazten dituen ebaluazio-irizpideetan, oinarrizko jakintzetan eta kompetentzia espezifikoetan oinarrituta, Euskara eta Literatura lantzeko hainbat baliabide bilduko ditut. Ekoizpenak 6 atal nagusi ditu:

1. Curriculumak. 2023/77 Dekretuak bigarren ziklorako zehazten dituen kompetentzia espezifikoak, oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak biltzen dira bertan.
2. Metodologia. Sitiesean dagoen materiala zer metodologiaren barruan aplikatzen den eta nola erabiltzeko diseinatuta dagoen azaltzen da.
3. Testu-motak lantzeko baliabideak. Lehen Hezkuntzan lantzen diren hainbat testu-mota (azalpen-testua, deskripzio-testua, instrukzio-testua, narrazio-testua, gidoia eta argudio-testua) ikasleekin lantzeko baliabideak biltzen dira.
4. Gramatika. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan lantzen den oinarrizko gramatikari buruzko azalpenak jasotzen dira.
5. Ortografia. Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan lantzen den ortografiari buruzko azalpenak biltzen dira.
6. Ebaluazio-taulak. Euskara eta Literatura ikasgaiarekin lotutako hainbat alderdi ebaluatzeko taulak eranstean dira.

Sitesa irakasleek erabiltzeko diseinatuta dago; baliabide-bilduma bat da. Horregatik, bertan aurkituko duzuen materiala irakasle bakoitzak bere metodora eta bere beharretara moldatu behar du. Ez da programazio bat, ezta zehatz-mehatz jarraitu beharreko jarduera multzo bat ere; irakasleei irakaskuntza-prozesuan laguntzeko baliabide-bilduma da.

CURRICULUMA (77/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa)

77/2023 Dekretuak, maiatzaren 30ekoak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoak, bigarren eranskinean zehazten du euskara eta gaztelania lantzean kompetentzia espezifiko, ebaluazio-irizpide eta oinarrizko jakintza zehatz batzuk landu behar direla. Honako hau da laburpena:

A) Kompetentzia espezifikoak

77/2023 Dekretuaren bigarren artikuluan honela definitzen dituzte kompetentzia espezifikoak: "arlotan eta ikasgai bakoitzeko oinarrizko jakintza beharrezkoa den jardueretan edo egoeretan ikasleek baliatzen jakin beharreko neurriak. Kompetentzia espezifikoak alde batetik funtsezko kompetentziak eta bestetik ikasgaietako oinarrizko jakintzak eta ebaluazio-irizpideak lotzeko eta zehazteko elementuak dira". Hauek dira Euskara eta Literatura eta Gaztelania eta Literatura arloetako kompetentzia espezifikoak:

1. **EAEko eta inguruko eleaniztasuna eta kultura-aniztasuna aitortzea eta baloratzea**, ikasleen eta haien inguruko hizkuntzen identifikaziotik eta interrelaziotik abiatuta, betiere hizkuntza-estereotipoak eta -aurreiritziak baztertzeko, hizkuntza guztiekiko jarrera positiboa eta errespetuzkoa izateko eta euskararen ohiko erabilerarekiko portaera asertiboak sustatzeko.
2. **Ahozko testuak eta testu multimodalak ulertzea eta interpretatzea**, zentzu orokorra eta informaziorik garrantzitsuena identifikatuz eta alderdi formalak eta oinarrizko edukiko alderdiak baloratuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-premiei erantzuteke.
3. **Testu idatzi eta multimodalak ulertzea eta interpretatzea**, testu horien zentzu globala, ideia nagusiak eta informazio esplizitua hartuz, eta alderdi formalei eta edukiei buruzko oinarrizko gogoeta eginez, ezagutza eskuratzeko eta eraikitzeke eta askotariko komunikazio-beharrei eta -interesei erantzuteke.
4. **Testu idatzi eta multimodalak zuzentasun gramatikalez eta ortografikoz sortzea**, edukiak zuzen sekuentziatuz eta plangintzarako, idazketarako, berrikuspenerako eta ediziorako oinarrizko estrategiak aplikatuz, ezagutza eraikitzeke eta komunikazio-eskaera zehatzei erantzuteke.
5. **Bi iturritatik edo gehiagotik datorren informazioa modu planifikatuan bilatzea, hautatzea eta egiaztatzea**, informazioaren fidagarritasuna ebaluatuz eta manipulatzeko eta desinformatzeko

- arriskuak ezagutzuz, ezagutza eraldatzeko eta modu sortzailean jakinarazteko, ikuspuntu pertsonaletik eta jabetza intelektuala errespetatuz.
6. **Gustuen eta interesen arabera aukeratutako askotariko obrak autonomiaz irakurtzea**, irakurketa esperientziak partekatuz, irakurle-nortasuna eraikitzen hasteko, irakurzaletasuna plazer-iturri gisa sustatzeko eta irakurketaren gizarte- eta kultura-dimentsioaz gozatzeko.
 7. **Ikaslearen garapenerako egokiak diren literatura-obrak edo horien zatiak irakurtzea, interpretatzea eta aztertzea**, haien arteko erlazioak ezarriz eta literatura-generoa eta haren oinarriko konbentzioak identifikatuz, literatura arte-adierazpen gisa ezagutzen hasteko eta plazer- eta ezagutza-iturri gisa eta literatura-asmoko testuak sortzeko inspirazio-iturri gisa ezagutzen hasteko.
 8. **Hizkuntzari buruz gogoeta egitea, testuinguru esanguratsuetako testuak sortzeko eta ulertzeko prozesuetatik abiatuta eta oinarriko terminologia egokia erabiliz**, ikasleak hizkuntzako eta hizkuntza arteko kontzientzia garatzen hasteko eta ahozko eta idatzizko produkzioaren eta ulermenaren trebetasunak hobetzeko.
 9. Norberaren komunikazio-praktikak bizikidetzara demokratikoaren zerbitzura jartzea, **hizkuntza ez diskriminatzailea eta inklusiboa erabiliz** eta hitzaren bidez botere-abusuak atzemanaz eta baztertuz, **hizkuntzaren erabilera eraginkorra eta etikoa bultzatzeko**.
 10. **Ahozko testuak eta testu multimodalak koherentziaz, argitasunez eta erregistro egokiz sortzea**, ideiak, sentimenduak eta kontzeptuak adierazteko; ezagutza eraikitzea; lotura pertsonalak ezartzea; eta askotariko ahozko elkarrekintzetan autonomiaz eta jarrera kooperatibo eta enpatikoz parte hartzea.

B) Ebaluazio-irizpideak

77/2023 Dekretuaren bigarren artikuluan ebaluazio-irizpideak honela definitzen dira: "arlotan edo ikasgai bakoitzaren konpetentzia espezifikoen aipatutako jardueretan edo egoeretan ikasleek ikaskuntza-prozesuaren une jakin batean iritsi beharko lituzketen jardun-mailak adierazten dituzten erreferenteak". Eranskinetan 2. zikloko ebaluazio-irizpideak jasotzen dituen taula dago.

C) Oinarrizko jakintzak

77/2023 Dekretuan era honetan definitzen dituzte oinarrizko jakintzak: "arlotan, ikasgai edo eremuetako berezko ezagutza, trebetasun eta jarrerak, edozein pertsonak menderatu, artikulatu eta mobilizatu behar dituenak konpetentzia espezifikoen definitutako gaitasunekin batera, problemak konpontzeko edo egoera jakin batzuetan erronkei aurre egiteko. Curriculum-proposamen honetan, konpetentzia espezifikoak eskuratzeko eta garatzeko egiten duten ekarpenarengatik hautatzen dira oinarrizko jakintza horiek, nahiz eta diziplina-logikak eduki horiek hobeto antolatzen eta aurkezten laguntzen duen". Eranskinetan 2. zikloko oinarrizko jakintzak jasotzen dituen taula dago.

EUSKARA ETA LITERATURA LANTZEKO SITESA

Atal honetan azalduko dut Lehen Hezkuntzako bigarren zikloan Euskara eta Literatura ikasgaia lantzeko zer material erabiliko dudan. Bertan, ebaluazio-taulak, jarduerak eta txantiloak bilduko ditut. Betiere, aurreko atalean jaso ditudan eta 77/2023 Dekretuak zehazten dituen ebaluazio-irizpideetan, kompetentzietan eta oinarrizko jakintzetan oinarrituta. Alde batetik azalduko dut zein metodologia aplikatzea komeni den sitesa erabiltzeko; eta, beste alde batetik, bertan jasoko ditudan baliabideak erantsiko ditut.

A) Metodologia

Sitesa metodologia zehatz bati jarraituz diseinatu dut. Horrek ez du esan nahi soilik lan egiteko modu horren barruan erabil daitekeenik. Irakasle bakoitzak bere metodoa du eta baliteke nire proposamen hau beste era batera erabili ahal izatea. Hala ere, nik buruan dudan lan-metodologia azalduko dizuet.

Sitesa sortzean, Euskara eta Literatura zein Natura, Kultura eta Gizarte Ingurunearen Ezagutza arloek biltzen dituzten proiektuetan oinarritu naiz. 77/2023 Dekretuak ikas-egoeretan lan egin behar dugula adierazten digu, eta arlo guztiak biltzen dituzten ikasketa-prozesuak diseinatu behar ditugula. Modu horretan bermatuko dugu Euskara eta Literaturan garatu behar ditugun kompetentziak, ebaluazio-irizpideak eta oinarrizko jakintzak lantzen ditugula. Gainera, ikas-egoera bakarrean hainbat arlo jorratzen ditugu. Ondorioz, sitesa proiektuetan edo ikas-egoeretan erabiltzeko diseinatuta dago.

Azalpena hobeto ulertzeko, adibide bat jarriko dut. Demagun ikasleekin hitz egin eta gero, ikas-egoera identifikatzen dugula; adibidez, udan, bazkalostean, digestioa amaitu arte ezin garela uretan sartu. Ikasleekin batera bidea eraikiko dugu eta azken ekoizpena zehaztuko dugu: hainbat bideo didaktiko sortuko dituzte, eta haietan jasoko dute digestioak nola funtzionatzen duen eta osasuntsu egoteko zer egin behar dugun. Behin gaia eta azken ekoizpena definitu ditugula, ikasketa-prozesuari ekingo diogu. Alde batetik, ikasiko dugu digestioak nola funtzionatzen duen eta, beste alde batetik, azalpen-testuak nola sortzen diren. Momentu horretan sitesera joko dugu. Bertan, azalpen-testua egiteko jarduerak, ebaluazio-taulak (ikasleentzat eta

irakasleentzat), azalpen-testuak osatzeko txantiloiak eta azalpen-testuei buruz jakin beharrekoak topatuko ditugu. Irakasle bakoitzak material hori eskura izango du eta bere modura egokitu ahal izango du, taldeko behar guztiei erantzuteko.

B) Testu-motak lantzeko baliabideak

Lehen esan bezala, sitiesean hainbat testu-mota lantzeko baliabideak jaso ditut. Hauek dira garatu ditudanak: azalpen-testua, deskripzio-testua, instrukzio-testua, narrazioa, gidoia eta argudio-testua.

Bestalde, testu-mota bakoitzetik honako dokumentu hauek sortu ditut: testuen ezaugarriak, eredu bat, txantiloia bat hutsik ikasleek osatzeko eta autoebaluazio-orri bat.

1. Azalpen-testua

Ezaugarriak eta egitura

- **Helburua:** azalpen-testuen helburua da informazioa transmititzea.
- **Ezaugarriak:**
 - Idazleak ez du bere iritzia ematen.
 - Irakurlea nor izango den kontuan izan behar da, idazteko era alda daitekeelako. Hau da, zientziari buruzko azalpen-testu baten hartzaileak zientzialariak badira, hiztegia zientifikoa izango da. Hartzaileak Lehen Hezkuntzako ikasleak badira, aldiz, hiztegia errazagoa izango da.
 - Esaldi motzak eta ulertzeko errazak erabili behar dira.
 - Ohikoena da aditzak hirugarren pertsonan eta orainaldian erabiltzea. Azalpen asko atemporalak eta orokorrak izan ohi dira.
- **Egitura:**
 - Titulua. Testuaren izena da, gaia hitz gutxitan laburtzen duena.
 - Sarrera. Testuaren gai nagusia jasotzen du.
 - Garapena. Gaiari buruzko informazioa ematen du. Garapena azpiataletan banatu daiteke.
 - Ondorioa. Testuan azaldu diren ideiak laburtuta jasotzen ditu.

- **Testu-ereduak:**
 - Testuliburuetan agertzen diren azalpenak.

Eredua

HERRI-KIROLAK

Euskal Herriko hirietako eta herrietako jaietan eta egun berezietan (Gasteizko Santiago eguna, adibidez) herri-kirolen txapelketak egiten dira. Baina zer dira herri-kirolak? Testu honetan galdera horri erantzungo diogu; kirol hauen jatorria zein den eta zer kirol-mota dauden ezagutuko dugu.

ZER DIRA HERRI-KIROLAK?

Kirol hauek guztiek landa-inguruneko lan-jardueretan dute jatorria. Hauek dira jarduera horien adibide batzuk:

- Egurra moztu, etxea berotzeko.
- Baserriaren inguruko belarra moztu.
- Janariz betetako zakuak merkatutik baserrira eraman.

Herri-kirolen jatorria

Baserrien artean jarduera jakin batean trebeena nor zen ikusteko, hainbat pertsonen arteko lehiak sortzen hasi ziren. Era horretan, kirol-jarduera bihurtu ziren.

Herri-kirol motak

Herri-kirol mota asko daude, eta gehienak baserriko lanekin lotuta daude. Honako hauek dira famatuena:

- Harri-jasotzea. Lurrean dagoen harri bat altxatu behar da. Altxaldi gehien egiten dituenak edo pisutsuena altxatzen duenak irabazten du.
- Aizkora-jokoa. Enbor handi batzuk jartzen dira hainbat lerrotan (5 enbor 2 lerrotan, adibidez, bi aizkolarik parte hartzen badute). Enborrak aizkorarekin azkarren mozten dituenak irabazten du.
- Sega-apustua. Sega batekin belarra moztu behar da. Denbora-tarte batean belar gehien mozten duenak irabazten du.

- Lokotx-biltzea. Sasaki batean, ahalik eta denbora laburrenean, artaburu kopuru jakin bat bildu behar da. Artaburuak 1,25 metroko distantziara lerrokatzen dira. Artaburu guztiak azkarren jasotzen dituenak irabazten du.

ONDORIOA

Laburbilduz, herri-kirolak Euskal Herrian jokutzen diren kirolak dira. Gehienbat gure baserrietan egiten ziren lanak dira, baina, jendea elkarren aurka lehiatzen hasi zenean, kirol bihurtu ziren. Gaur egun, hiri eta herrietan herri-kirolen txapelketak eta erakusketak egiten dira.

Ostatzeko txantiloia

IZENBURUA: _____

SARRERA

GARAPENA

ONDORIOA

Ikasleen autoebaluazio orria.

AUTOEBALUAZIO-ORRIA. AZALPEN-TESTUA		
IKASLEA:	DATA:	
EGITURA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuak badauka izenburua.		
Testuak badauka sarrera.		
Testuak badauka garapena.		
Testuak badauka ondorioa.		
Testuaren titulua zentratuta dago.		
Testuaren marjinak errespetatu dira.		
EZAUGARRIAK	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Idazleak bere iritzia ematen du.		
Hiztegiak irakurlearen ulermen-gaitasunarekin bat egiten du.		
Esaldi motzak erabili dira.		
Aditzak hirugarren pertsonan eta orainaldian daude.		
EDUKIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuaren helburua betetzen da.		
Titulua gaiarekin bat dator.		
Sarrerak gaia aurkezten du.		
Garapenean gaiaren inguruko informazioa ematen da.		
Ondorioan gaia laburtzen da.		
GRAMATIKA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

ORTOGRAFIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

2. Deskripzio-testua

Ezaugarriak eta egitura

- **Helburua:** deskripzio-testuen helburua da pertsonak, animaliak, lekuak, objektuak eta sentimenduak nolakoak diren azaltzea.
- **Ezaugarriak:**
 - Bi deskripzio mota daude:
 - Subjektiboa. Deskribapenean idazleak bere iritzia ematen du.
 - Objektiboa. Idazleak deskribatzen duena errealitatera egokitzen da, bere iritzia eman gabe.
 - Ordena zehatz bat jarraitu behar dute (goitik behera, eskuinetik ezkerretara...). Bestela, deskripzioan gal gaitezke.
- **Egitura:**
 - Izenburua. Testuak deskripzioa soilik badu, izenburu bat izango du. Testu baten barruan dagoenean, aldiz, ez diogu izenbururik jarriko.
 - Deskripzioa. Deskripzioa jasotzen du. Ordena bat jarraitu behar du, ulertzeko erraza izateko:
 - Zer da? (izena, mota)
 - Nondik dator?
 - Ze ezaugarri fisiko ditu? (tamaina, kolorea, forma, atalak, materiala...)
 - Ze ezaugarri psikologiko ditu? (izaera, pentsamenduak, sentimenduak eta emozioak)

Eredua

WILLY KATUA

Willy sei hilabeteko katu bat da. Bere benetako izena William da, baina bere jabeek Willy esaten diote. Europar arrunta arrazakoa da.

Mikelek eta Garazik ,Willyren jabeek, katu txikia bere hiriko kale nagusian aurkitu zuten. Konpontzen ari ziren eraikin batean, aldamico baten azpian, miauka zegoen katu txiki bat ikusi zuten. Egoera aztertu eta konturatu ziren katutxoa bakarrik zegoela, orduan etxera eramatea erabaki zuten.

Willyk hiru kolore ditu: zuria, beltza eta grisa. Aurpegiaren erdia zuria da, bere lepoa eta hanka-puntak bezala. Gorputzak, tigreak bezala, marra grisak eta beltzak ditu. Katuak belarriak eta buztana oso handiak eta iletsuak ditu.

Izaerari dagokionez, oso alaia da eta jolastea oso gustatzen zaio, ping-pong pilotekin, batez ere.

Osatzeko txantiloia

IZENBURUA: _____

ZER DA? IZENA?

NONDIK DATOR?

ZER EZAUGARRI FISIKO DITU?

ZER EZAUGARRI PSIKOLOGIKO DITU?

Ikasleen autoebaluazioa-orria

AUTOEBALUAZIO-ORRIA. DESKRIPZIO-TESTUA		
EGITURA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuak badauka izenburua.		
Testuak badauka "zer da" atala.		
Testuak badauka "nondik dator" atala.		
Testuak badauka "ze ezaugarri fisiko ditu" atala.		
Testuak badauka "ze ezaugarri psikologiko ditu" atala (animalia ala pertsonak).		
EZAUGARRIAK	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Deskripzioak ordena zehatz bat jarraitzen du (goitik behera, eskuinetik ezkerretara...).		
EDUKIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuaren helburua betetzen da.		
Deskribatzen dena zer den erraz ulertzen da.		
Deskribatzen dena nondik datorren erraz ulertzen da.		
Deskribatzen dena fisikoki nolakoa den erraz ulertzen da.		
Deskribatutako animalia ala pertsona psikologikoki nolakoa den erraz ulertzen da.		
GRAMATIKA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

ORTOGRAFIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

3. Instrukzio-testua

Ezaugarriak eta egitura.

- **Helburua:** instrukzio-testuen helburua da ekintza bat gauzatzeko, orientabideak, aginduak, argibideak edo arauak adieraztea.
- **Ezaugarriak:**
 - Testu-antolatzaileak erabili ohi dira urratsak ordenatzeko.
 - Azalpen oso zehatza ematen da, prozesua ondo ulertzeko.
 - Aditzak aginte moduan edo era inpersonalean jartzen dira.
 - Urrats bakoitza esaldi batean jaso behar da.
 - Idatzizkoak edo irudiekin egindakoak izan ahal dira.
- **Egitura:**
 - Izenburua. Testuaren izena da.
 - Sarrera. Testuaren azalpen orokorra ematen du, adibidez, zer den egingo dena eta zertarako balio duen.
 - Prozedura. Pausoz pauso zer egin behar den eta zer material behar den azaltzen du.
- **Testu-ereduak**
 - errezetak
 - arauak
 - instrukzioak

Eredua

LIMOIZKO BIZKOTXOA

Testu honetan limoizko bizkotxo egiteko urratsak aurkituko dituzue. Errezeta oso sinplea eta erraza da, umeein batera egiteko modukoa.

Osagaiak:

- limoizko jogurt bat
- oliba olio (jogurt pote bat)
- azukrea (bi jogurt pote)
- irina (hiru jogurt pote)
- legamia poltsatxo bat
- hiru arrautza
- gurin pixka bat

Prozedura

- Hasteko, isuri ontzi handi batean limoizko jogurta.
- Bigarrenik, bota irina, azukrea, arrautzak, legamia eta olio ontzi berean eta nahasi dena oso ondo.
- Hirugarrenik, berotu labea 180 °C hartu arte.
- Laugarrenik, hartu molde eta igurtzi gurinez, bizkotxo ez itsasteko.
- Bosgarrenik, bota moldera lehen nahasi dituzun osagaiak eta sartu labean 40 minutuz.
- Azkenik, sartu labana bizkotxoan, garbi ateratzen bada, prest dago. Bestela, sartu berriro labean beste minutu pare batez eta errepikatu prozesua labana garbi atera arte.

Osatzeko txantiloia

Izenburua: _____

Sarrera

Osagaiak edo materiala

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

Prozedura

- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____
- _____

-

Ikasleentzako autoebaluazio-orria

AUTOEBALUAZIO-ORRIA. INSTRUKZIO-TESTUA		
EGITURA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuak badauka izenburua.		
Testuak badauka "osagaiak" edo "tresnak" atala.		
Testuak badauka "prozedura" atala.		
EZAUGARRIAK	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testu-antolatzaileak erabili dira prozedura ordenatzeko.		
Azalpen oso zehatza ematen da.		
Aditzak aginteran daude.		
Urrats bakoitza esaldi batean idatzita dago.		
EDUKIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuaren helburua betetzen da.		
Argi adierazten da zer osagai behar diren eta zer urratsi jarraitu behar zaien errezeta egiteko.		
Erraz ulertzen da zer prozesuri jarraitu behar zaion.		
GRAMATIKA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
ORTOGRAFIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

4. Narrazio-testua

Ezaugarriak eta egitura.

- **Helburua:** narrazio-testuen helburua da istorio bat kontatzea.
- **Ezaugarriak:**
 - Narratzaile bat dute; hau da, istorioa kontatzen duen ahotsa edo pertsona. Istorioko pertsonaia bat edo istoriotik kanpo dagoen beste pertsona bat izan daiteke.
 - Pertsonaiak narrazioetan oso garrantzitsuak dira eta pertsonaia horiek ondo deskribatzea ezinbestekoa da.
 - Narrazioetan deskribapen asko daude: pertsonaiak eta lekuak.
 - Gertakariak ordena kronologiko logiko bati jarraitu behar diote; hau da, denbora-lerro bati jarraitu behar diote.
 - Aditzaren lehenaldiko eta orainaldiko formak erabiltzen dira gehienbat.
- **Egitura:**
 - Hasierra. Pertsonaiak eta haien testuingurua aurkezten da eta, horrekin batera, istorioa non eta noiz gertatzen den azaltzen da.
 - Korapiloa. Testuaren zatirik luzeena da; izan ere, bertan, pertsonaiek konpondu behar dituzten arazoak garatzen dira.
 - Amaiera. Zati honetan arazoak konpontzen dira. Gatazkak edo egoerak hainbat izan daitezke eta istorioan zehar konpon daitezke, baina beti egon behar da arazo nagusi bat bukaeran konpontzen dena, edo zabalik geratzen dena jarraipena baldin badago.
- **Testu-ereduak:**
 - ipuinak
 - eleberririk
 - mitoak
 - kondairak
 - kontaketak
 - elezaharrak

Eredua**JON PIRATA ETA BERE LAGUNA**

Orain dela urte asko, 1745. urtean, itsaso urrun batean nabigatzen ari zen itsasontzi oso txiki bat. Itsasontzi horrek Sua zuen izena, eta Jon zen kapitaina eta bidaiari bakarra. Jonek 10 urte zituen eta Madagaskar uhartean jaio zen. Oso azal zuria zuen, ilea beltz-beltza eta begiak berdeak. Jonek, txikitatik, itsasora begira pasatzen zituen orduak, munduko piratarik onena izatea baitzen bere ametsa. Horregatik, egun batean portura gerturatu zen, eta abandonatuta zegoen itsasontzi txiki batera igo, eta itsasoan murgildu zen.

Lau aste pasa zituen itsasoan, bakarrik. Ezin zuen inorekin hitz egin. Goiz batean, esnatu, eta luzaroan ikusi ez zuen gauza bat ikusi zuen Suaren brankatik: lurra. Lemari bi eskuekin heldu, belak ireki, eta Sua lur zati horretara bideratu zuen. Haizea alde zerman eta oso abiadura bizia hartu zuen. Hogei minutuan kostaldera heldu, aingura bota, eta hondartza batera heldu zen igeri.

Jon bakarrik zegoen lur zati horretan; bere inguruan, harea baino ez zegoen. Orduan, hondartzaren beste alde ikusi behar zuela erabaki zuen.

—Basoa! Ederto! Seguru baso horretan janaria eta ura egongo dela! —pentsatu zuen Jonek, eta, korrika, bertan murgildu zen.

Bat-batean, koko batek jo zuen buruan, eta Jonek atzera begiratu zuen, baina ez zuen ezer ikusi. Orduan, sorbaldan beste koko batek jo zuen eta, jarraian, beste bat albotik pasatu zitzaion. Momentu horretan ikusi zuen zer ari zen gertatzen: tximino txiki bat zebilen kokoak botatzen.

—Nor zara? Bakarrik zaude? Zergatik ari zara kokoak botatzen? —galdetu zion Jonek tximinoari. Baina tximinoa zuhaitzera igo, eta adar batetik bestera saltoka hasi zen.

—Alde hemendik! —oihu egin zuen tximinoak. Jonek kasu egin zion eta hondartzara bueltatu zen.

Gauean, Suari begira, ideia bat bururatu zitzaion, tximinoarekin hitz egitea lortzeko. Janari oso goxoa prestatu, eta ohar bat jarri zion tximinoari. Basoan sartu, janaria lurrean utzi, eta hondartzara bueltatu zen. Hurrengo goizean esnatu, eta tximinoa ikusi zuen eserita, berari begira.

—Kaixo! —esan zion Jonek, eta tximinoak Jon agurtu zuen.

—Zein da zure izena? Zergatik zaude bakarrik basoan? —galdetu zion tximinoari.

—Suri da nire izena, baso honetan galdu naiz eta ez dut nire familia aurkitzen. Lau aste daramatzat bakarrik, eta oso triste sentitzen naiz basoan.

Orduan, Joni ideia bat bururatu zitzaion.

—Nahi duzu nirekin etorri? Munduko piratarik onena bihurtu nahi dut eta itsasontzian oso bakarrik sentitzen naiz. Biok elkarrekin egongo gara eta ez gara hainbeste aspertuko.

Tximinoa pentsatzen geratu zen zeruari begira, eta proposamenarekin ados zegoela adierazi zion. Orduan, Suara igo ziren eta, abentura berriak bizitzeko ilusioarekin, itsas zabalean galdu ziren.

Osatzeko txantiloia.

Izenburua: _____

Hasiera:

Garapena:

Amaiera:

Ikasleen autoebaluazio-orria.

AUTOEBALUAZIO-ORRIA. NARRAZIO-TESTUA		
EGITURA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuak badauka izenburua.		
Testuak badauka hasiera.		
Testuak badauka korapiloa.		
Testuak badauka amaiera.		
EZAUGARRIAK	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Gertakariak kronologikoki antolatuta daude (denbora-lerro bat jarraitzen dute).		
Aditzak orainaldian edo lehenaldian daude.		
EDUKIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuaren helburua betetzen da.		
Hasieran pertsonaiak eta lekua ondo deskribatzen dira.		
Korapiloan pertsonaiek zein arazori aurre egin behar dioten argi azaltzen da.		

Korapiloan pertsonaiek arazoa konpontzeko zer egiten duten azaltzen da.		
Amaieran arazoa konpondu dela argi adierazten da.		
GRAMATIKA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
ORTOGRAFIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

5. Gidoia

Ezaugarriak eta egitura.

- **Helburua:** gidaien helburua da istorio batean pertsonaiek zer esaten eta egiten duten adieraztea.
- **Ezaugarriak:**
 - Eszenatan banatuta dago.
 - Eszena bakoitza ataletan banatuta dago.
 - eszenaren azalpena
 - eszenatokiaren ezaugarriak
 - pertsonaien kokalekua eta mugimenduak
 - elkarrizketa
 - Elkarrizketan ez dira gidoiak jartzen, pertsonaien izenak jarrita adierazten da bakoitzak zer esan behar duen.

- **Egitura:**

- Eszena. Gidoiaren kapituluak dira. Azpiataletan banatzen dira.
 - Azalpena. Eszenan zer gertatzen den laburtzen du.
 - Narratzailea. Pertsonaiak non dauden eta zer egin behar duten azaltzen du.
 - Elkarrizketa. Pertsonaia bakoitzak zer esan behar duen jasotzen du.
Parentesien artean pertsonaien ekintzak adierazten dira.

- **Ereduak:**

- antzerkiak
- filmak

Eredua

IKERTZAILEAK

1. ESZENA. HARRESIAREN BESTE ALDEKO MISTERIOA

2024. urtean Gasteizko eskola bateko lau ikasle patioan jolasten ari dira eta, bat-batean, harresiaren beste aldean zerbait arraroa sumatu dute.

Garazi, June, Jon eta Pello patioan sokasaltoan jolasten ari dira. Garazi eta Jon sokarekin ari dira, June saltoka ari da, eta Pello, hamaiketakoa amaitzen duen bitartean, salto egiteko txandari itxaroten dago

GARAZI ETA JON

"Pello txoferrak lere, galdetu zidan lere, ea nahi nuen lere, kotxez ibili lere...". *(abesten dute sokari eragiten dioten bitartean)*

PELLO

Zer da hori? (oihukatu eta atzamarrarekin harresira seinalatu du)

JUNE

Zer ikusi duzu Pello?

PELLO

Ez nago ziur; txakur bat zirudien, baina ez zen txakurra; belarriak eta begiak oso handiak zituen.

JON

Zer diozu! Seguru txakur bat dela. Jarrai dezagun jolasten, jolas-ordua bost minutu barru amaituko da eta.

PELLO

Seguru nago ez zela txakurra; zerbait arraroa zegoen harresiaren beste aldean.

GARAZI

Nire ustez, misterio hori argitzeko modu bakarra harresira gerturatzea da. (*Lau ikasleek soka lurrean utzi dute eta harresira gerturatu dira*)

PELLO, GARAZI, JON eta JUNE

Zer da hori? (*oihu egiten dute beldurtuta*)

Osatzeko txantiloia

ANTZERKIAREN IZENBURUA: _____

ESZENAREN IZENBURUA: _____

ESZENAREN AZALPENA (letra larriz idatzi behar da)

NARRATZAILEA (pertsonek zer egiten duten eta non dauden azaldu behar da)

ELKARRIZKETA

pertsonaia: _____

pertsonaia: _____

pertsonaia: _____

pertsonaia: _____

pertsonaia: _____

pertsonaia: _____

Ikasleen autoebaluazio orria.

AUTOEBALUAZIO-ORRIA. GIDOIA		
EGITURA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuak badauka izenburua.		
Testua eszenetan banatuta dago.		
Eszena bakoitzak badauka bere azalpena.		
Eszena bakoitzak badauka narratzailea.		
Eszena bakoitzak badauka elkarrizketa.		
EZAUGARRIAK	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Eszena bakoitzean pertsonaiek zer egin eta esaten duten argi adierazten da.		
EDUKIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuaren helburua betetzen da.		
Eszena bakoitzean zer gertatzen den argi azaltzen da.		
Eszena bakoitzean pertsonaiek zer esaten duten argi adierazten da.		
Eszena bakoitzean pertsonaiek zer egiten duten argi adierazten da.		
Eszena bakoitzaren lekua ezaugarriak (deskribapena) argi adierazten dira.		
GRAMATIKA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

ORTOGRAFIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

6. Argudio-testua

Ezaugarriak eta egitura.

- **Helburua:** argudio-testuen helburua da egileak gai baten inguruan iritzia ematea.
- **Ezaugarriak:**
 - Iritzia emateko hitzak edo egiturak ageri ohi dira (uste izan, pentsatu, nire iritziz ...).
 - Mendeko perpausak ugariak dira, batez ere, kausa-ondoriozkoak.
 - Testu-antolatzaileak erabiltzen dira:
 - Azalpenak emateko (alegia, hain zuen ere, izan ere...).
 - Arrazoiak gehitzeko (era berean, horrekin batera, halaber...).
 - Arrazoiak kontrajartzeko (nahiz eta, bestalde, baina...).
 - Ondorioa adierazteko (horregatik, ondorioz, laburbilduz...).
 - Datu objektiboak eta adibideak erabili ohi dira.
- **Egitura:**
 - Izenburua. Testuaren izena da.
 - Sarrera. Gaia aurkeztu eta egileak bere iritzia adierazten du.
 - Aldeko argudioak. Egilearen iritzia defendatzeko argudioak adierazten dira.
 - Kontrako argudioak. Egilearen iritzia kontrako argudioak jasotzen dira.
 - Ondorioa. Testuan adierazi diren ideien laburpena egin eta egilearen tesia indartzen da.
- **Ereduak:**
 - debatea
 - iritzi-artikuluak

Eredua**FUTBOLA JOLAS-ORDUETAN**

Azkenaldian, futbola jolas-orduetan gatazka iturri bihurtu da Gasteizko ikastetxe askotan. Gaur egungo gizartean futbolak indar handia dauka eta ikasleek horretan aritu nahi dute, baina eskoletan ez dago ikasle guztiek batera jokatzeko azpiegiturarik. Gainera, futbola ikasleen arteko gatazka iturri da askotan. Horregatik, nire ustez, alde batera utzi eta ikasleei beste jolas edo joko batzuk erakutsi behar dizkiegu.

Futbolak gure gizartean indar handia daukanez, lehia handia eragiten du ikasleen artean. Ikasleek jolas-orduetan jokatzeko duten partidetan irabaztea bakarrik izan ohi dute buruan, kideak gutxiesten edo baztertzen dituzte sarritan, onek bakarrik jokatzeko dute eta abar. Gainera, aurkariak irabazten badute, haiekin haserretzen dira. Nahiz eta gaia eskola-orduetan landu eta ikasleekin hitz egin, arazoa ez da konpontzen.

Halaber, Lehen Hezkuntzako eskoletan 6-12 urte bitarteko ikasleak daude eta guztiek zelai batean edo bitan batera jokatzeko ezinezkoa da. Ondorioz, ordutegi bat sortu behar da ikasgela guztiek jokatzeko aukera bera izateko. Baina euria egiten badu eta talde batek bere txanda galtzen badu, nola kudeatzen da egoera eta ikasleen haserrea?

Bestalde, futbola jolas-orduetatik kentzen badugu, egia da ikasleei futboleko aritzeko aukera kentzen diegula. Baina futboleko aritzen diren ikasleek, askotan, eskolaz kanpoko ekintzetan ere futbola praktikatzeko dute. Ondorioz, futbola gure jolas-orduetatik kentzeak ez du esan nahi ikasleek futboleko jokatu ez dutenik.

Laburbilduz, jolas-orduetan futboleko jokatu ez proposatuko nuke. Beste jolas batzuk eramango nituzke lagunekin jolasteko eta beste jolas mota batzuk ezagutzeko. Era horretan, kudeaketa arazoa saihestuko genuke eta, bide batez, baita ikasleen arteko gatazkak ere.

Ostatzeko txantiloia.

IZENBURUA: _____

SARRERA:

ALDEKO ARGUDIOAK

KONTRAKO ARGUDIOA

ONDORIOA

Ikasleen autoebaluazio-orria.

AUTOEBALUAZIO-ORRIA. ARGUDIO-TESTUA		
EGITURA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuak badauka izenburua.		
Testuak badauka sarrera.		
Testuak badauzka aldeko argudioak.		
Testuak badauka kontrako argudioa.		
Testuak badauka ondorioa.		
EZAUGARRIAK	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Idazleak bere iritzia adierazten du.		
Testu-antolatzaileak erabili dira.		
Adibideak ematen dira.		
EDUKIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA
Testuaren helburua betetzen da.		
Sarreran gaia aurkezten da.		
Sarreran idazleak bere iritzia ematen du.		
Aldeko argudioak agertzen dira.		
Kontrako argudioak agertzen dira.		
Ondorioan testuan agertzen diren ideien laburpena egiten da.		
Ondorioan idazleak bere iritzia indartzen du.		
GRAMATIKA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

ORTOGRAFIA	ONDO	MOLDATU BEHARREKOA

C) Ebaluazio-orriak

Ikasleekin egindako proiektuak, ikas-egoerak edo gelako jarduerak ebaluatzeko, 77/2023

Dekretuak zehazten dituen ebaluazio-irizpideak kontuan hartuta hurrengo ebaluazio-orriak sortu
ditut:

EBALUAZIO-ORRIA. IDATZIZKO ULERMENA ETA ADIERAZPENA**IKASLEA:****DATA:** / /

Ebaluazio-irizpidea (4.1): Zenbait arlotako eta askotariko xedeetarako testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta informazio esplizitua laguntzarekin ezagutzuz.

Ebaluazio-irizpidea (4.2): Testu idatzi eta multimodalen edukia eta oinarriko alderdi formalak eta ez-hitzezkoak laguntzarekin aztertzea, testu horien edukia eta egitura baloratuz eta testu horien fidagarritasunaren ebaluazioan hasiz.

OINARRIZKO JAKINTZAK	BEHE-M AILA	ERDI-M AILA	GOI-M AILA
Banako irakurketa, garapen kognitiborako egokiak diren intonazioarekin eta eritmoarekin			
Komunikazio-asmoa eta oinarriko testu-tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa.			
Gero eta zailtasun handiagokoak diren elementu grafikoak, testualak eta paratestualak, ulermena laguntzen dutenak irakurketa-esperientziaren aurretik, bitartean eta ondoren.			
Testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan, askotariko iturri dokumentaletako testuen zentzu orokorra ulertzeko eta informazio esplizitua laguntzarekin integratzeko oinarriko estrategiak.			
Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak erabiltzeko oinarriko estrategiak, testuen ulermena hobetze aldera.			
Hitzezko hizkuntzaren eta hizkuntza ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.			

<p>Ebaluazio-irizpidea (5.1): Edukien sekuentzian nolabaiteko koherentzia izango duten testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan eta zuzentasun gramatikal eta ortografikoz sortzea, komunikazio-egoera bakoitzari hobe erantzungo dion diskurtso -eredua aukeratuz eta idazketaren prozesu ebolutiboaren etapak errespetatuz (plangintza, idazketa eta berrikuspena).</p> <p>Ebaluazio-irizpidea (5.2): Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzien eta multimodalen autoebaluaziorako eta koebaluaziorako tresnak eta irizpideak laguntzarekin erabiltzea, prozesu horretan modu aktiboan parte hartuz, sortutako zailtasunak identifikatuz eta errorea ikaskuntza-prozesuaren parte gisa onartuz.</p>			
OINARRIZKO JAKINTZAK	BEHE-M AILA	ERDI-M AILA	GOI-MA ILA
Aurkezpen zaindua eta oinarrizko ortografia-arauen aplikazioa.			
Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak eta jarraibideak.			
Testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan planifikatzeko, idazteko, berrikusteko eta editatzeko oinarrizko estrategiak eta ereduak, banakakoak nahiz taldekakoak, zenbait komunikazio-helbururekin.			
Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak erabiltzeko oinarrizko estrategiak, idatzizko adierazpena hobetze aldera.			
Testuaren antolaketa eta ulermena errazten duten elementu grafiko eta paratestual errazak.			

EBALUAZIO-ORRIA. AHOZKO ULERMENA ETA ADIERAZPENA			
IKASLEA:		DATA: / /	
<p>Ebaluazio-irizpidea (2.1): Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzua ulertzea, ideia nagusiak, mezu esplizituak eta mezu inpliziturik errazena ezagutzeko eta edukiaren eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarrikoen balorazio kritikoan laguntzarekin aurrera eginez.</p> <p>Ebaluazio-irizpidea (2.2): Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzeko, ahozko arte- eta kultura adierazpenen bidez.</p>			
OINARRIZKO JAKINTZAK	BEHE-MAILA	ERDI-MAILA	GOI-MAILA
Ahoskera eta intonazio egokiak.			
Ahozko elkarrekintza egokia —ikasgelako egoeretan eta oinarriko testuinguru formaletan—, hizkuntza-kortesiako oinarriko estrategiak eta norberaren hitzezko eta ez-hitzezko komunikazioaren autoerregulazioko oinarriko estrategiak mobilizatuz.			
Gatazkak elkarriketa bidez ebazteko prozesuan, entzute aktiboko eta asertibotasuneko estrategiak.			
Hitzezko eta ez-hitzezko hizkuntzaren balizko erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.			
Testuaren zentzu orokorra identifikatzeko eta interpretatzeko estrategiak, eta gizarte-testu errazen, ahozkoen eta multimodalen, oinarriko informazio esplizitua eta inplizitua integratzeko estrategiak.			
Hitzezkoa ez den komunikazioaren oinarriko elementuak interpretatzeko estrategiak.			
<p>Ebaluazio-irizpidea (3.1): Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak plangintza lagundu bidez sortzea, diskurtsoaren erregistroa komunikazio-egoerara egokituz eta hitzezkoak ez diren oinarriko baliabideak erabiliz.</p> <p>Ebaluazio-irizpidea (3.2): Bat-bateko edo araututako ahozko elkarrekintzetan modu kooperatiboan eta enpatikoan parte hartzea, hizkuntza-kortesiaren oinarriko arauak errespetatuz eta entzute aktiboko estrategietan hasiz.</p>			
OINARRIZKO JAKINTZAK	BEHE-MAILA	ERDI-MAILA	GOI-MAILA

Ahoskera eta intonazio egokiak.			
Ahozko elkarrekintza egokia —ikasgelako egoeretan eta oinarrizko testuinguru formaletan—, hizkuntza-kortesiako oinarrizko estrategiak eta norberaren hitzeko eta ez-hitzeko komunikazioaren autoerregulazioko oinarrizko estrategiak mobilizatuz.			
Hitzeko eta ez-hitzeko hizkuntzaren balizko erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.			
Ezagutzaren eraikuntza, balorazioa eta komunikazioa, betiere ahozko testu eta testu multimodal errazak laguntzarekin planifikatzearen eta produzitzearen bidez.			
Testuaren zentzu orokorra identifikatzeko eta interpretatzeko estrategiak, eta gizarte-testu errazen, ahozkoen eta multimodalen, oinarrizko informazio esplizitua eta inplizitua integratzeko estrategiak.			
Hitzekoa ez den komunikazioaren oinarrizko elementuak interpretatzeko estrategiak.			

EBALUAZIO-ORRIA. HIZKUNTZA-OHITURAK, INFORMAZIO-ITURRIAK ETA ZUZENTASUNA**IKASLEA:****DATA:** / /

Ebaluazio-irizpidea (1.1): Inguruneko hizkuntzak eta dialektoak (zeinu-hizkuntzak barne) ezagutzea eta haiekiko interesa eta errespetua erakustea, hizkuntzen eta kulturen arteko oinarriko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta alderatuz.

Ebaluazio-irizpidea (1.2): Ohiko hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzea eta saihestea —nolabaiteko autonomiaz eta hurbileko testuinguruetan—, edonolako diskriminazioak arbuatuz eta inguruneko hizkuntza-dibertsitatea kultura-aberastasunaren iturri gisa aitortuz.

Ebaluazio-irizpidea (1.3): Euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, eskola- eta gizarte-inguruneko eta ingurune digitaleko komunikazioetan euskara erabiltzearen aldeko jarrera proaktiboa azalduz.

Ebaluazio-irizpidea (10.1): Hizkuntza-erabilera diskriminatzaileak baztertzea eta hitzaren bidez gertatzen diren botere-abusuak identifikatzea, komunikazioa zuzentzen duten hitzezko eta ez-hitzezko oinarriko alderdiei buruzko taldeko gogoeta lagundutik abiatuta eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.

Ebaluazio-irizpidea (10.2): Komunikazio asertiborako eta adostasunerako oinarriko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin, talde-lanean modu aktiboan parte hartuz, esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketan aurrera eginez.

OINARRIZKO JAKINTZAK	BEHE-M AILA	ERDI-M AILA	GOI-M AILA
Hizkuntza-biografia eta ikasgelako hizkuntza-dibertsitatea.			
Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak: elebitasuna eta hizkuntza-normalizazioa.			
Hizkuntza-dibertsitatea eta dibertsitate-etnokulturala, hizkuntza arteko gogoetarako tresna eta aberastasun gisa.			
Elebiduna eta eleaniztuna izatearen aberastasun pertsonalaren balorazioa.			
Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzeko estrategiak.			
Hizkuntza ez-diskriminatzailea eta desberdinekiko errespetuzkoa erabiltzeko estrategiak.			
Euskararen erabilera proaktiboa eskola- eta gizarte-bizitzan.			

Euskal kultura- eta musika-ondarearen erreferentziatzko abestiak (aho-korapiloak, abesti tradizionalak...).			
Ahozotasunarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak (Olentzero, Santa Ageda...).			
Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.			
Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.			
Estrategia-kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu.			
Autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarritzko tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluazio-xedeak...).			
<p>Ebaluazio-irizpidea (6.1): Bi iturritako edo gehiagoko informazioa bilatzeko, hautatzeko, egiaztatze eta antolatze oinarritzko estrategiak planifikatuta eta lagunduta erabiltzea, fidagarritasuna eta manipulatze ariskuak ebaluatuz.</p> <p>Ebaluazio-irizpidea (6.2): Interes pertsonal, akademiko edo ekosozialeko gairen bati buruz banaka edo taldean egindako ikerketa-prozesu erraz baten emaitzak partekatzea, tresna analogiko eta digitalak erabiliz, erabilitako iturriak aipatuz eta jabetza intelektuala errespetatuz.</p> <p>Ebaluazio-irizpidea (6.3): Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak laguntzarekin hartzea, informazioaren bilaketari eta komunikazioari dagokienez.</p>			
OINARRIZKO JAKINTZAK	BEHE-M AILA	ERDI-M AILA	GOI-MAI LA
Askotariko iturri dokumentaletan eta zenbait euskarri eta formatutan, informazioaren bilaketa gidaturako oinarritzko estrategiak, fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta. Egitateak eta iritziak.			
Informazioa alderatzeko eta antolatzeo estrategiak eta teknikak.			
Informazioa berriro lantzeko eredu esplizituak.			
Ezagutzaren sormenezko komunikazioa, jabetza intelektuala errespetatuz.			

Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.			
Eskolako jardueretan eta/edo proiektuetan parte hartu, tresna edo plataforma birtualak erabiliz.			
<p>Ebaluazio-irizpidea (9.1): Hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko oinarriko ondorioak formulatzea, subjektuaren eta aditzaren arteko erlazioari arreta berezia eskainiz, betiere hitzak, esakuneak eta testuak behatu, alderatu eta manipulatzetik abiatuta.</p> <p>Ebaluazio-irizpidea (9.2): Norberaren eta besteen testuak laguntzarekin berrikustea eta hobetzea, eta irakurritakoa ulertzeko eta idatzizko adierazpenerako arazo batzuk konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarriko terminologia egokia erabiliz.</p> <p>Ebaluazio-irizpidea (9.3): Transferentzia eta hizkuntza-bihurketa errazak laguntzarekin egitea, hizkuntzen arteko konparazioetan hasiz, hizkuntza koofizialetatik eta ikasleen beste hizkuntza batzuetatik abiatuta.</p>			
OINARRIZKO JAKINTZAK	BEHE-M AILA	ERDI-M AILA	GOI-M AILA
Ortografia-zuzentzaileak eta testu-prozesadoreen funtzionalitateak erabiltzen hasteko jarraibideak.			
Hizkuntzara hurbildu, zenbait maila dituen sistema gisa: soinuak eta letrak, hitzak, perpausak eta testuak. Oinarriko komunikazio-unitateak behatu eta alderatu.			
Hizkuntza-sistemari buruzko ondorioen eraikuntza gidaturako estrategiak.			
Puntuazio-zeinuak idatzizko testua antolatzeke eta komunikazio-asmoa adierazteko mekanismo gisa.			
Hiztegia zabaltzeko funtsezko elementuak. Arlo lexiko edo semantiko bereko hitzen arteko antzekotasunak eta forma- eta esanahi-desberdintasunak.			
Hitzen arteko erlazio formalak, semantikoak eta sintaktikoak identifikatu.			
Komunikazio-asmoarekin lotutako perpaus modalitateak.			
Oinarriko koherentzia-eta kohesio-mekanismoak, arreta berezia jarriz errepikapenei eta sinonimoei, eta perpausen eta paragrafoen ordenari.			

Kohesio-mekanismoak, arreta berezia eskainiz testu-lokailu esplikatiboei eta ordezkapen pronominaleri, barne-erreferentziako oinarritzko mekanismo gramatikal gisa.			
Gogoeta metalinguistikotik abiatuta, norberaren eta besteen testuak berrikusteko eta hobetzeko tresnak.			
Zenbait euskarritako hiztegien erabilera gidaturako oinarritzko estrategiak.			
Sexismoaren analisia hizkuntzan eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak.			
Osagaiek (egoera, parte-hartzaileak, komunikazio-asmoa edo bidea) komunikazio-egintzan duten eragina.			
Edukiko (gaiak, formula finkoak, lexikoa) eta formako (egitura, formatua, izenburua, irudiak) oinarritzko elementuak.			

EBALUAZIO-ORRIA. LITERATURA-ZALETASUNA**IKASLEA: DATA: / /**

Ebaluazio-irizpidea (7.1): Beren gustuei eta interesei egokitutako eta gero eta autonomia handiagoz hautatutako zenbait autoreren testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzea, irakurle-nortasuna eraikitze bidean aurrera eginez.

Ebaluazio-irizpidea (7.2): Askotariko euskarritako (digitala barne) irakurketaren esperientzia partekatzea, eskola-esparruko irakurketa-komunitateetan parte hartuz eta irakurketa norberaren ezagutza- eta garapen-iturri gisa baloratuz.

Ebaluazio-irizpidea (8.2): Haur-literatura unibertsaleko eta euskal tradizioko askotariko autoreren orotariko testuak entzutea eta irakurtzea, testuak gaien arabera eta literatura-generoaren funtsezko alderdien arabera erlazionatuz eta bestelako adierazpen artistiko edo kulturekin erlazionatuz eta interpretatuz, betiere lagunduta.

Ebaluazio-irizpidea (8.3): Testu errazak, indibidualak edo kolektiboak, literatura-asmoz eta lagunduta sortzea, eredu jakin batzuk modu pertsonalean eta zenbait euskarritan birsortuz eta beste arte-hizkuntza batzuekin osatuz.

OINARRIZKO JAKINTZAK	BEHE-M AILA	ERDI-M AILA	GOI-M AILA
Literatura-obra osatzen duten funtsezko elementuak (gaia, protagonista, pertsonaia sekundarioak, trama, agertokia, hizkuntza) eta literatura generoak osatzen dituzten funtsezko elementuak, obraren zentzuaren eraikuntzan.			
Literatura-elkarrizketen bidez obrak interpretatzeko estrategiak, lagunduta eta partekatuta.			
Adierazpen-baliabideak eta testuaren harreran duten eragina.			
Testuen eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko erlazioa.			
Euskal kultura-ondareko obrak eta horien zatiak.			
Irakurle-nortasunaren eraikuntza. Gustuen eta interesen adierazpena. Obren balorazio argudiatuak hastapenak.			
Gelako edo ikastetxeko liburutegia erabiltzeko jarraibideak, literatura jarduera partekatuetarako espazioa. Irakurketa-komunitateak.			

D) Gramatika

1. Esaldien egitura

Baiezko esaldien ordena

- Honako hau da jarraitu behar dugun egitura:
- **Izena + osagarria + aditza**
 - o Jon (izena) + medikuarenera (osagarria) + joan da (aditza).
 - Jon medikuarenera joan da.
 - o Garazik (izena) + etxeko lanak (osagarria) + egin ditu (aditza).
 - Garazik etxeko lanak egin ditu.

Ezezko esaldien ordena

- Honako hau da jarraitu behar dugun egitura:
- **Izena + ez + aditz laguntzailea + osagarria + aditza.**
 - o Ane (izena)+ ez + da (aditz laguntzailea) + medikuarenera (osagarria) + joan (aditza).
 - Ane ez da medikuarenera joan.
 - o Mikel (izena) + ez + da (aditz laguntzailea) + eskolara (osagarria) + etorri (aditza).
 - Mikel ez da eskolara etorri.

Galderen ordena

Galdetzailea badago honako hau da jarraitu behar dugun egitura:

- **Galdetzailea + aditza + osagarria + ?**
 - o Norekin (galdetzailea) + joango zara (aditza) + oporretan (osagarria) + ?
 - Norekin joango zara oporretan?

Bai edo ez erantzuna duten galderak egiten ditugunean baiezko esaldien egitura bera jarraituko dugu:

- **Izena + osagarria + aditza + ?**
 - o Aitarekin (izena) + parkera (osagarria) + joango zara (aditza) + ?
 - Aitarekin parkera joango zara?

2. Izen-sintagma eta aditz-sintagma

Izen-sintagma

Izen-sintagma izena ardatz duen egitura da. Izenak eta haren inguruan biltzen diren osagaiak osatzen dute.

- **Mikel** mendira joan da.

Aditz-sintagma

Izen-sintagma ez den beste guztia da, ekintza zein den esaten diguna eta informazio gehigarria ematen diguna.

- Mikel **mendira joan da**.

3. Deklinabidea

Izen-sintagmek zereginaren arabera, marka bereziak daramatzate. Adibidez, gauza bat pertsona bati eman diozula adierazteko, hau da, nori eman diozun adierazteko izen-sintagmari *-ri* partikula gehituko diozu. Partikula hori deklinabide atzikia esaten zaio. Beheko taulan deklinabide marka nagusienak aurkituko dituzu.

Deklinabidea	Singularra	Plurala	Mugagabea
Nor / Zer	-a	-ak	
Nork / Zerk	-ak	-ek	-(e)k
Nori / Zeri	-ari	-ei	-(r)i
Noren / Zeren	-aren	-en	-(r)en
Norekin / Zerekin	-arekin	-ekin	-(r)ekin
Norentzat / Zerentzat	-arentzat	-entzat	-(r)entzat
Zerez / Zertaz / Nortaz	-az	-ez	-(e)z
Norengatik / Zerengatik	-a(ren)gatik	-engatik	-(r)engatik
Non / Noiz	-(e)an	-etan	-(e)(ta)n
Nondik / Noiztik	-(e)tik	-etatik	-(e)(ta)tik
Nora	-(e)ra	-etara	-(e)(ta)ra

Noraino	-(e)raino	-etaraino	-(e)(ta)raino
Norantz	-(e)rantz	-etarantz	-(e)(ta)rantz
Nongo / Noizko	-(e)ko	-etako	-(e)(ta)ko
Norako / Zertarako	-(e)rako	-etarako	-(e)(ta)rako
Norengan	-a(ren)gan	-engan	-(r)engan
Norengandik	-a(ren)gandik	-engandik	-(r)engandik
Norengana	-a(ren)gana	-engana	-(r)engana
Norenganantz	-a(ren)ganantz	-enganantz	-(r)enganantz
Norenganaino	-a(ren)ganaino	-enganaino	-(r)enganaino
Norenganako	-a(ren)ganako	-enganako	-(r)enganako

Parentesien artean agertzen diren hizkiak ez dira beti jarriko, izen-sintagmaren arabera jarriko ditugu.

4. Aditza eta aditz laguntzailea

Aditza

- Aditza ekintza zein den adierazten duen hitza da.

Aditz laguntzailea

- Aditz laguntzailea ekintza noiz eta nork egiten duen adierazten duen hitza da.
- Aditz laguntzaileak 4 motatakoak izan daitezke:
 - Nor
 - Nor-nori
 - Nor-nork
 - Nor-nori-nork
- Esteka hauetan aurkituko dituzue: [aditzak orainaldian](#) eta [aditzak lehenaldian](#).

5. Hitz-familiak

Hitz eratorriak

Hitz batetik sortzen diren hitzak dira. Erro bera dutela esaten da:

- **astea**, **asteburua**, **astelehena**, **asteazkena**...
- **Liburua**, **liburutegia**, **liburugile**, **liburugintza**...

- Aurizkiak. Hitzen aurrean jartzen dira, hitz berriak sortzeko:
 - **birra**itona, **berre**gin, **des**konposatu, **eze**zagun...
- Atzizkiak. Hitzen amaieran jartzen dira, hitz berriak sortzeko:
 - argazki**lari**, muti**ko**, euskal**dun**, euskal**tegi**...

Testuinguru bera duten hitzak

Testuinguru berean sartzen diren hitzek hitz-familia bat sortzen dute.

- Eskolako testuingurua:
 - arkatza, borragoma, arbela, irakaslea, ikaslea...
- Baserriko animaliak:
 - behia, ardia, zaldia, txerria, oilarra...

E) Puntuazioa

1. Puntua

Irakurketan egin behar diren pausaldi luzeak markatzeko erabiltzen da. Honako kasu hauetan erabiltzen da batik bat:

- Esaldia amaitzen denean, puntua jartzen da bukaeran.
- Lerro berean (puntu eta jarrai) edota hurrengo lerroan (puntu eta bereiz) jarrai dezakegu. Horretarako arrazoibidearen edo ideien segida hartzen da kontuan gehienbat. Alegia, aurreko gaiarekin segida estua dagoenean, puntu eta jarrai egiten da. Aldiz, ideien segidan pauso berri bat ematen denean, puntu eta bereiz. Testu baten bukaeran ipintzen den puntuari azken puntua deitzen zaio.
- Laburduren ondoan ere puntua erabiltzen da:
 - adib. (adibidez), or. (orrialde), km (kilometro), etab. (eta abar)...

2. Koma

Irakurketan egin behar diren pausaldi laburrak markatzeko erabiltzen da. Honako kasu hauetan erabiltzen da batik bat:

- Enumerazioetan, esaldiko bi zati edo gehiago bereizteko, mota berekoak direnean eta segidan doazenean.
 - Gaur goizean azokan, harategian, arrandegian eta okindegian izan naiz.

- Esaldiak bereizteko, pausaldia egiten denean.
 - Kalera bazoaz, eros ezazu egunkaria.
- Deikia edo bokatiboa esaldiaren hasieran doanean, koma darama ondoan. Deikia perpausaren barnean dagoenean, koma artean jartzen da.
 - Mikel, ekar itzazu oinetako horiek.
 - Aizu, Itziar, zatoz lehenbailehen.
- Perpaus baten barruan, esandakoa argitzeko edo osatzeko beste esaldi bat tartekatzen denean, kontraera nagusia ebakitzen duen esaldi hori koma artean jartzen da.
 - Koldo, Maiteren anaia gazteena dena, etxera joan da.
- *Bai* eta ez bat baino gehiago izanez gero, koma jarriko dugu.
 - Bai trena, bai kotxea, bai hegazkina oso gogoko ditut.
- Testu antolatzaileak esaldi hasieran doazenean, testu antolatzailearen ostean koma jartzen da.
 - Ondoren, bota azukrea.

3. Bi puntuak

Bi puntuak pausaldi luzea adierazten dute. Baina puntu bakarrak ez bezala, bi puntuak nolabaiteko segida edo argibidea adierazten dute. Kasu hauetan erabiltzen dira:

- Gutunetan, hasierako agurraren ondoren.
 - Jaun agurgarria:
Idazki hau sinatzen duenak...
- Norbaiten esanak hitzez hitz aipatzen direnean, bi puntuak jartzen dira aipamenaren aurretik. Aipamena letra larriz hasten da.
 - Galdera hau egin zidan emakumeak: Non dago hondartza?
- Adibideak jarri nahi direnean, bi puntuak jartzen dira enumerazioaren aurretik.
 - Bokalez hasten diren zenbakiak h letrarekin idazten dira euskaraz, ehun izan ezik: hiru, hamar, hamaika, hamabi, hogeit, etab.
- Zerrenda bat egiten denean, bi puntuak jartzen dira aurretik.
 - Lau urtaroak hauek dira: udaberria, uda, udazkena eta negua.

F) Testu-antolatzaileak

Testuak antolatzeko testu-antolatzaileak erabiltzen dira. Hainbat motatako testu-antolatzaileak daude; begiratu beheko taulan:

Hasiera emateko				
Hasteko,	Lehenengo eta behin,	Ezer baino lehen,	Bazen behin,	Lehen-lehenik,
Ordena adierazteko				
Alde batetik, ... bestetik,	Era berean,	Lehenik, Bigarrenik, Hirugarrenik, ...	Lehen esan bezala,	Gauzak horrela,
Idea bat aurkezteko				
-ri dagokionez,	... dela eta, Komeni da esatea...	Oro har,	Horrela,	Gainera,
Jarraipena adierazteko				
Ondorioz,	Gero,	Era berean,	Horren ostean,	Hori egin/esan eta gero...
Kontrakotasuna adierazteko				
Baina,	Dena dela,	Dena den,	Hala ere,	
Adibideak jartzeko				
Adibidez,	Esate baterako,	Hau da,	Hori erakusteko, aipa dezagun...	
Arrazoitzeko				
Horregatik,	Izan ere,	Hori dela eta,	Beraz,	Hortaz,
Idea bat indartzeko				
Gainera,	Are gehiago,	Aipatu bezala,	Kontuan hartu	
Onarpena adierazteko (zehaztasuna)				
Seguruenik,	Ziur aski,	Dударik gabe,	Zalantzarik gabe,	Zer esanik ez,

G) Ortografia

1. Letra larria

Noiz jarri behar dugu letra larria?

- Testu baten hasieran
- Puntuaren ondoren
- Galdera- edo harridura-markaren ondoren
- Eten puntuen ondoren
- Izen berezien hasieran (pertsonek, animaliak, lekuak...)

2. R-ren eta RR-ren erabilera

Noiz jarri "R" bakarra?

- Hitzaren hasieran
 - **r**obotika, **R**aul, **R**ebeka...
- Hitzaren amaieran
 - Igor**r**, Iker**r**...
- Kontsonantearen eta bokalaren artean
 - boligra**r**afoa, ila**r**gia, mar**r**goa...
- Bi bokalen artean ("R" leuna egin nahi badugu)
 - begi**r**atu, erro**t**uladorea,...

Noiz jarri "R" bikoitza (RR)?

- Bi bokalen artean ("R" gogorra egin nahi badugu)
 - e**rr**ebobinatu, e**rr**epikatu...

3. H-ren erabilera

Noiz jarri behar da "h"?

- Erakusleak h-z idazten dira.
 - **h**au, **h**ori, **h**ura, **h**oriek, **h**aiek...
- Bokalez hasten diren zenbakiak h daukate hasieran, ehunek eta ehunez hasten diren zenbakiak izan ezik.
 - **h**amar, **h**ogei, **h**ogeita **h**amar, **h**iru...
- Bi bokal berdinen artean h jartzen da.
 - ma**h**aia, mi**h**ia, a**h**atea...
- **KONTUZ!** Hitza deklinatzean bi bokal jarraian baditugu, ez da h jartzen.
 - etxeetan

4. Z-ren, S-ren eta X-ren erabilera

- Aditz laguntzaileak zetaz idazten dira.

5. TS-ren, TZ-ren eta TX-ren erabilera

- "L", "N" eta "R" ondoren ez dugu S, Z edo X erabiliko; **beti TS, TZ eta TX erabiliko ditugu.**
- **TX hitz hasieran erabil daiteke**, baina **TZ** eta **TS** ezin dira hitz hasieran erabili.

6. A itsatsia

Euskarazko hitz batzuek *a itsatsia* dute, hau da, ezin zaie amaierako "a" letra kendu. Hauek dira *a itsatsia* duten hitzak:

- Jatorrizko erdaran –a hizkiz bukatutako guztiak.
- Atzizki-sorta hau:
 - o -KERIA: alferkeria, handikeria...
 - o -TURA/-DURA: prozedura, abiadura...
 - o -TZA: agintaritza, nekazaritza...
 - o -KUNTZA: irakaskuntza, berrikuntza...
 - o -(K)ADA: besarkada, matxinada...
 - o -KINTZA/-GINTZA: zapatagintza, kulturgintza...
 - o -(T)ERIA: gazteria, tresneria...
 - o -(K)ERA: harrera, bukaera...
 - o -(K)ETA: ikasketa, hizketa...
- Atzizki hauek:
 - o -GURA: logura, negargura...
 - o -BERA: bihozbera, hozbera...
- Beste hitz batzuk:
 - o familia
 - o hezkuntza
 - o hizkuntza
 - o animalia

ERANSKINA

Ebaluazio-irizpideen taulak

EBALUAZIO-IRIZPIDEAK 2. ZIKLOA	
1. kompetentzia espezifikoa	1.1 Inguruneko hizkuntzak eta dialektoak (zeinu-hizkuntzak barne) ezagutzea eta haiekiko interesa eta errespetua erakustea, hizkuntzen eta kulturen arteko oinarriko antzekotasunak eta desberdintasunak identifikatuz eta alderatuz.
	1.2 Ohiko hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzea eta saihestea — nolabaiteko autonomiaz eta hurbileko testuinguruetan—, edonolako diskriminazioak arbuatuz eta inguruneko hizkuntza-dibertsitatea kultura-aberastasunaren iturri gisa aitortuz.
	1.3 Euskararen aldeko hizkuntza-ohitura eta -portaera asertiboak eta enpatikoak hartzea, eskola- eta gizarte-inguruneko eta ingurune digitaleko komunikazioetan euskara erabiltzearen aldeko jarrera proaktiboa azalduz.
2. kompetentzia espezifikoa	2.1 Ahozko testu eta testu multimodal errazen zentzua ulertzea, ideia nagusiak, mezu esplizituak eta mezu inpliziturik errazenak ezagutuz eta edukiaren eta hitzezkoak ez diren elementurik oinarrikoenen balorazio kritikoan laguntzarekin aurrera eginez.
	2.2 Euskal kulturaren aberastasuna ezagutzea, ahozko arte- eta kultura-adierazpenen bidez.
3. kompetentzia espezifikoa	3.1 Ahozko testu eta testu multimodal koherenteak plangintza lagundu bidez sortzea, diskurtsoaren erregistroa komunikazio-egoerara egokituz eta hitzezkoak ez diren oinarriko baliabideak erabiliz.

	3.2 Bat-bateko edo araututako ahozko elkarrekintzetan modu kooperatiboan eta enpatikoan parte hartzea, hizkuntza-kortesiaren oinarritzko arauak errespetatuz eta entzute aktiboko estrategietan hasiz.
4. konpetentzia espezifikoa	4.1 Zenbait arlotako eta askotariko xedeetarako testu idatzi eta multimodal errazak isilik eta ozenki irakurtzea, zentzu orokorra eta informazio garrantzitsua identifikatuz eta informazio esplizitua laguntzarekin ezagutuz.
	4.2 Testu idatzi eta multimodalen edukia eta oinarritzko alderdi formalak eta ez-hitzezkoak laguntzarekin aztertzea, testu horien edukia eta egitura baloratuz eta testu horien fidagarritasunaren ebaluazioan hasiz.
5. konpetentzia espezifikoa	5.1 Edukien sekuentzian nolabaiteko koherentzia izango duten testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan eta zuzentasun gramatikal eta ortografikoz sortzea, komunikazio-egoera bakoitzari hobe erantzungo dion diskurtso-eredua aukeratuz eta idazketaren prozesu ebolutiboaren etapak errespetatuz (plangintza, idazketa eta berrikuspena).
	5.2 Modu indibidualean edo kolektiboan sortutako testu idatzien eta multimodalen autoebaluaziorako eta koebaluaziorako tresnak eta irizpideak laguntzarekin erabiltzea, prozesu horretan modu aktiboan parte hartuz, sortutako zailtasunak identifikatuz eta errorea ikaskuntza-prozesuaren parte gisa onartuz.
6. konpetentzia espezifikoa	6.1 Bi iturritako edo gehiagoko informazioa bilatzeko, hautatzeko, egiaztatzeke eta antolatzeko oinarritzko estrategiak planifikatuta eta lagunduta erabiltzea, fidagarritasuna eta manipulatzeko arriskuak ebaluatuz.
	6.2 Interes pertsonal, akademiko edo ekosozialeko gairen bati buruz banaka edo taldean egindako ikerketa-prozesu erraz baten emaitzak partekatzea, tresna analogiko eta digitalak erabiliz, erabilitako iturriak aipatuz eta jabetza intelektuala errespetatuz.

	6.3 Teknologia digitalen erabilera kritiko, seguru, iraunkor eta osasungarriko ohiturak laguntzarekin hartzea, informazioaren bilaketari eta komunikazioari dagokienez.
7. konpetentzia espezifikoa	7.1 Beren gustuei eta interesei egokitutako eta gero eta autonomia handiagoz hautatutako zenbait autoreren testuak gero eta autonomia handiagoz irakurtzea, irakurle-nortasuna eraikitzeko bidean aurrera eginez.
	7.2 Askotariko euskarritako (digitala barne) irakurketaren esperientzia partekatzea, eskola-esparruko irakurketa-komunitateetan parte hartuz eta irakurketa norberaren ezagutza- eta garapen-iturri gisa baloratuz.
8. konpetentzia espezifikoa	8.1 Haur-literatura unibertsaleko eta euskal tradizioko askotariko autoreen orotariko testuak entzutea eta irakurtzea, testuak gaien arabera eta literatura-generoaren funtsezko alderdien arabera erlazionatuz eta bestelako adierazpen artistiko edo kulturekin erlazionatuz eta interpretatuz, betiere lagunduta.
	8.2 Testu errazak, indibidualak edo kolektiboak, literatura-asmoz eta lagunduta sortzea, eredu jakin batzuk modu pertsonalean eta zenbait euskarritan birsortuz eta beste arte-hizkuntza batzuekin osatuz.
9. konpetentzia espezifikoa	9.1 Hizkuntzaren funtzionamenduari buruzko oinarriko ondorioak formulatzea, subjektuaren eta aditzaren arteko erlazioari arreta berezia eskainiz, betiere hitzak, esakuneak eta testuak behatu, alderatu eta manipulatzetik abiatuta.
	9.2 Norberaren eta besteen testuak laguntzarekin berrikustea eta hobetzea, eta irakurritakoa ulertzeko eta idatzizko adierazpenerako arazo batzuk konpontzea, gogoeta metalinguistikotik abiatuta eta oinarriko terminologia egokia erabiliz.

	9.3 Transferentzia eta hizkuntza-bihurketa errazak laguntzarekin egitea, hizkuntzen arteko konparazioetan hasiz, hizkuntza koofizialetatik eta ikasleen beste hizkuntza batzuetatik abiatuta.
10. kompetentzia espezifiko	10.1 Hizkuntza-erabilera diskriminatzaileak baztertzea eta hitzaren bidez gertatzen diren botere-abusuak identifikatzea, komunikazioa zuzentzen duten hitzezko eta ez-hitzezko oinarizko alderdiei buruzko taldeko gogoeta lagundutik abiatuta, eta genero-ikuspegia kontuan hartuta.
	10.2 Komunikazio asertiborako eta adostasunerako oinarizko estrategiak mobilizatzea, beharrezko laguntzarekin eta planifikazioarekin, talde-lanean modu aktiboan parte hartuz, esleitzen zaizkion banako erantzukizunak bere gain hartuz eta gatazken elkarrizketa bidezko kudeaketan aurrera eginez.

Oinarrizko jakintzen taulak

BIGARREN ZIKLOA
Hizkuntzak eta haien hiztunak. Eleaniztasuna
Hizkuntza-biografia eta ikasgelako hizkuntza-dibertsitatea.
Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza koofizialak: elebitasuna eta hizkuntza-normalizazioa.
Hizkuntza-dibertsitatea eta dibertsitate etnokulturala, hizkuntza arteko gogoetarako tresna eta aberastasun gisa.
Elebiduna eta eleaniztuna izatearen aberastasun pertsonalaren balorazioa.
Hizkuntza-aurreiritziak eta -estereotipoak identifikatzeko estrategiak.
Hizkuntza ez-diskriminatzailea eta desberdinekiko errespetuzkoa erabiltzeko estrategiak.
Euskararen erabilera proaktiboa eskola- eta gizarte-bizitzan.
Euskal kultura- eta musika-ondarearen erreferentziazko abestiak (aho-korapiloak, abesti tradizionalak...).
Ahozotasunarekin lotzen diren euskal kultura-tradizioak (Olentzero, Santa Ageda...).
Komunikazioa
Hizkuntzaren erabilera
Hizkuntzaren erabilera inklusiboa, ideiak, emozioak eta sentimenduak adierazteko.
Osagaiek (egoera, parte-hartzaileak, komunikazio-asmoa edo bidea) komunikazio-egintzan duten eragina.
Edukiari (gaiak, formula finkoak, lexikoa) eta formari (egitura, formatua, izenburua, irudiak) dagozkien oinarrizko elementuak.
Autokonfiantza eta ikaskuntzari buruzko gogoeta. Errorea prozesuaren parte gisa.
Autoebaluazioko eta koebaluazioko oinarrizko tresnak, analogikoak eta digitalak, banakakoak eta kooperatiboak (ikasketa-egunkaria, paper-zorroa, errubrikak, ebaluazio-xedeak...).
Estrategia kooperatibo errazak, eta talde-lanean esleitutako banako erantzukizunak bere gain hartu.
Ahozko ulermena, komunikazioa eta elkarrekintza

Ahoskera eta intonazio egokiak.
Ahozko elkarrekintza egokia —ikasgelako egoeretan eta oinarrizko testuinguru formaletan—, hizkuntza-kortesiako oinarrizko estrategiak eta norberaren hitzeko eta ez-hitzeko komunikazioaren autorregulazioko oinarrizko estrategiak mobilizatuz.
Gatazkak elkarrizketa bidez ebazteko prozesuan, entzute aktiboko eta asertibotasuneko estrategiak.
Hitzeko eta ez-hitzeko hizkuntzaren balizko erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.
Ezagutzaren eraikuntza, balorazioa eta komunikazioa, betiere ahozko testu eta testu multimodal errazak laguntzarekin planifikatzearen eta produzitzearen bidez.
Testuaren zentzu orokorra identifikatzeko eta interpretatzeko estrategiak, eta gizarte-testu errazen, ahozkoen eta multimodalen, oinarrizko informazio esplizitua eta inplizitua integratzeko estrategiak.
Hitzekoa ez den komunikazioaren oinarrizko elementuak interpretatzeko estrategiak.
Irakurmena
Banako irakurketa, garapen kognitiborako egokiak diren intonazioarekin eta erritmoarekin.
Testu etenak (grafikoak, diagramak, mapak, denbora-lerroak, infografiak, ordutegiak...).
Komunikazio-asmoa eta oinarrizko testu-tipologiako giltzarriak: narrazioa, deskribapena, elkarrizketa.
Gero eta zailtasun handiagokoak diren elementu grafikoak, testualak eta paratestualak, ulermena laguntzen dutenak irakurketa-esperientziaren aurretik, bitartean eta ondoren.
Testu idatziak ulertzeko eta sortzeko prozesuetan, askotariko iturri dokumentaletako testuen zentzu orokorra ulertzeko eta informazio esplizitua laguntzarekin integratzeko oinarrizko estrategiak.
Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak erabiltzeko oinarrizko estrategiak, testuen ulermena hobetze aldera.
Hitzeko hizkuntzaren eta hizkuntza ikonikoaren erabilera diskriminatzaileak hautemateko estrategiak.

Idatzizko produkzioa
Aurkezpen zaindua eta oinarrizko ortografia-arauen aplikazioa.
Hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak eta jarraibideak.
Testu idatzi eta multimodal errazak zenbait euskarritan planifikatzeko, idazteko, berrikusteko eta editatzeko oinarrizko estrategiak eta ereduak, banakakoak nahiz taldekakoak, zenbait komunikazio-helbururekin.
Paperean nahiz euskarri digitalean dauden askotariko iturri dokumentalak erabiltzeko oinarrizko estrategiak, idatzizko adierazpena hobetze aldera.
Testuaren antolaketa eta ulermena errazten duten elementu grafiko eta paratestual errazak.
Informazio-alfabetatzea
Askotariko iturri dokumentaletan eta zenbait euskarri eta formatutan, informazioaren bilaketa gidaturako oinarrizko estrategiak, fidagarritasun-irizpideak kontuan hartuta. Egitateak eta iritziak.
Ortografia-zuzentzaileak eta testu-prozesadoreen funtzionalitateak erabiltzen hasteko jarraibideak.
Informazioa alderatzeko eta antolatzeko estrategiak eta teknikak.
Informazioa berriro lantzeko eredu esplizituak.
Ezagutzaren sormenezko komunikazioa, jabetza intelektuala errespetatuz.
Ikasgelako edo ikastetxeko liburutegia eta baliabide digitalak erabiltzeko jarraibideak.
Eskolako jardueretan eta/edo proiektuetan parte hartu, tresna edo plataforma birtualak erabiliz.
Literatura-hezkuntza
Literatura-obra osatzen duten funtsezko elementuak (gaia, protagonista, pertsonaia sekundarioak, trama, agertokia, hizkuntza) eta literatura-generoak osatzen dituzten funtsezko elementuak, obraren zentzuaren eraikuntzan.
Literatura-elkarrizketen bidez obrak interpretatzeko estrategiak, lagunduta eta partekatuta.
Adierazpen-baliabideak eta testuaren harreran duten eragina.
Testuen eta beste arte- eta kultura-adierazpen batzuen arteko erlazioa.
Euskal kultura-ondareko obrak eta horien zatiak.

Irakurle-nortasunaren eraikuntza. Gustuen eta interesen adierazpena. Obren balorazio argudiatutako hastapenak.
Gelako edo ikastetxeko liburutegia erabiltzeko jarraibideak, literatura-jarduera partekatuetarako espazioa. Irakurketa-komunitateak.
Hizkuntzari eta haren erabilerei buruzko hausnarketa, ahozko edo idatzizko testuak edo testu multimodalak sortzeko eta ulertzeko proposamenen esparruan
Hizkuntzara hurbildu, zenbait maila dituen sistema gisa: soinuak eta letrak, hitzak, perpausak eta testuak. Oinarrizko komunikazio-unitateak behatu eta alderatu.
Hizkuntza-sistemari buruzko ondorioen eraikuntza gidaturako estrategiak.
Puntuazio-zeinuak idatzizko testua antolatzeke eta komunikazio-asmoa adierazteko mekanismo gisa.
Hiztegia zabaltzeko funtsezko elementuak. Arlo lexiko edo semantiko bereko hitzen arteko antzekotasunak eta forma- eta esanahi-desberdintasunak.
Hitzen arteko erlazio formalak, semantikoak eta sintaktikoak identifikatu.
Komunikazio-asmoarekin lotutako perpaus modalitateak.
Oinarrizko koherentzia-eta kohesio-mekanismoak, arreta berezia jarritz errepikapenei eta sinonimoei, eta perpausen eta paragrafoen ordenari.
Kohesio-mekanismoak, arreta berezia eskainiz testu-lokailu esplikatiboei eta ordezkapen pronominaleri, barne-erreferentziako oinarrizko mekanismo gramatikal gisa.
Gogoeta metalinguistikotik abiatuta, norberaren eta besteen testuak berrikusteko eta hobetzeko tresnak.
Zenbait euskarrirako hiztegien erabilera gidaturako oinarrizko estrategiak.
Sexismoaren analisia hizkuntzan eta hizkuntzaren erabilera ez-sexistarako estrategiak.

BIBLIOGRAFIA

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saila, 2023, *77/2023 Dekretua*, maiatzaren 30ekoa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa.